


PRO



-ARRAINDEGIA -ITSASKIAK
-ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

I. Olañeta, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59

DERMOESTETIKA
INTEGRATUAREN ZENTRUA

PILAR

(Estetika mixtoa
espezializatua)

-MAKILAIA IRAUNKORRA
-HIDROMASAIA
-ESTETIKA MORFOLOGIKOAREN
DIAGNOSIA
-AURPEGIKO TRATAMENDUAK

Zubiaurre, 24 - 1. esk. ☎ 17 30 66



Trabaku Goiko
Taberna

NEKAZALTURISMOA

Trabakua Telf. 17 00 09
Mallabia

Urdaitegia

MAITE

Merkatu Plaza, 40
Telefonoa: 17 24 12

Marinoren errelebo bila

Mallabiko Txirrindulari Taldea Euskal Herriko errepideak zapaltzen hasi zenetik 11 urte betetzen diren honetan, Luis Pradera talde honen arduradun eta sortzailea elkarrizketatzeko aukera izan dugu.

Talde honek hasiera hasieratik izan duen helburua ez da karrerak irabaztea, neska-mutilei bizikletarako "bizioa" sartzea baino. Mallabitar honen filosofia bi hitzetan adierazteko, "karrerak irabazi? Karrerak irabaztera ezin dok urten hamasei urtera arteko mutikuekin. Irabazten badabe hobeto, ez tok?, baiña..."

-Zenbat karrerista daukazu aurtengo denboraldirako?

-Ba, jasek 9 kadete lehenengo urtekuek, sei bigarren urtekuek, hiru neska kadetiek eta eskolan egongo dittuk beste 11-14 urtera artekuek. Euren artien hiru neska. Aurten 20 bat karrera izengo dittuk. Bajukau Orbeakin karrera bat orgazitatzeko esperantzie. Neskak Euskadi mailan ibiltzen dittuk...

"Lehenengo deportistie ein biok ta gero ziklistie, ze gero ibili bidanien gastauta eoten dok."

-Ekipoaren maila besteekin konparatuz zer nolakoa da?

-"Jode!" Muestrie jak oin arte Masllabin pasau dienak badoiezela aurrera politto politto eta izen onakin gaiñera.

-Beste taldeekin batera funtzionatzen duzue ala?

-Bai, bai. Hartu emon haundixe dak beste talde batzuekin. Ez dok egoten pikeik.

-Diru laguntzarik izaten duzue?

-Bai, Aiantamientuek, Carnicas Mallabiak, Eguzki Aldekuek eta gero Orbeak. Igez ehun de hirurogei sozio euki genduaizen, baina aurten kuotak kentzie pentsau juau. Eta

gastuek, ba aurtten milloi erdi edo gastau juau kamiseta eta kaskuetan eta, bakarrik. Zapatak ez beste guztie emoten jutseu.

-Hain herri txikia izanda zelan konpontzen zarie karreretan?

-Zaldibarkuekin juntau giñan. Herri txikie dok eta ekipo batzuekin konpetitzeko gaizki ibiltzen giñan. Batekin bakarrik ezin dok lutzau ez ekipoka ez karrerie kontrolatzeko. Orduen herri bi juntau ezkerro asko be hobeto. Igez be Bizkaí guztien jo ta arrasau ein juen. Mallabiko mutillek zittuan. A ondo etorri zuan baina...

-Neskak eta?

-Geixa falta eitte oskuek. Beste hainbeste balegoz hobe. Sei jasek baiña, 12 balegoz hobe. Ointxe gaittuk ekartzeko eskolara tipo bat eta profesional bat txarla batzuk emon da ia baten batzuk animatzen badie edo... kontrarrelojeko bizikleta bat erakusteko ta abar da batzuk engaiñatzen badie... lehena prailiek etortzen zien modun karameluek emon da...

-Zenbat ibiltzen zarie hor?

-Bost ibiltzen gaittuk, Bixente Gartzia, "Zubittel", Jose Arrizabalaga, Jabi Novoa, anaie eta ni. Baiña gurasuekin ondo zertzen gaittuk. Gurasuek falta eitten dabenien danak etortzen dittuk.

-Non sufritzen da gehien?

-Geixen geixen nik uste juat sufritzen dala bizikleta gaiñien, ze korredorie hasten dok sufritzen karrera egunien goizeko armusuakin geixa. Armusue asko jan bijok, gaiñera "hidratos de carbono" horrelako dauken zera jan bijok. Direktoriek baiño geixa sufritzen jok begire dauen jentiek, uste juat, euren gurasuek eta. Ez dakik etorriko dan, ez dan, ze pasau ete dan...

Anbulantzian bat sentitzen badok sirena hotsien uliek tente geratzen dittuk eta bueno...

-Zein da ziklista batek dauken peligru haundixena?

-Nik uste juat peligru haundixena bajatzen

dauala, normalmente kaidiak bajatzen etortzen dittuk, eta normalean reflejuek jodidute daozenien. Betik gora itxota badoia orduantxe etortzen dittuk kaidiak. Mendire gora allegatzen dienien ehun metro nahikua izaten dok errekupeartzeko eta hori ein bida lehenengo. Gero espriñien be bastante peligrue egoten dok.

-Zergatik ateratzen da hainbeste txirrindulari Euskal Herrian?

-Etxaixat ba nik zeaittik urtetzen daben. Afiziño haundixa daolako seguramante izango dok. Asko daozenien baten batek urten ein biok.

-Besterik?

-Bai uste juat medikua komeni dala, ze guri mediku batek fenomeno atenditze oskuk.



Txirrindularien zuzendaria.

Da guretako trankilitatea izaten dok hori, ze umiak apuntatzen dienien kontrol bat eruaten jok medikuek. Harek sartzen jok ordenadorien historiala da urtero urtero txeko bat eitxe otsek. Zeozer daonien deittu telefonotik eta billamunien emote oskuk txandia ta, jo ta berarengana. Eta dana duan eitxe oskuk. Tipo majue dok.

-Inguruko ekipo onenak?

-Behin afizionatuen maillara allegatzen dienien hoiek diferentia dia, ze 19 urtezkerro

orduen ibili ein biok eta ekipo barik geratze bahaz ba ja gatzago dok segitzie. Ekipo onena? Ba gatzago dok esatie, batzuendako Bake izango dok, beste batzuendako ba Iberdrola izengo dok. Nik uste juat gaur egun Banesto ACR; hor dabixak onenak nere ustez. Hor sartzeko librau ein bihaz, estudiatzen bahao ez dabe hartzen. Banestok eskatzen jok dedikazio osua eta edade hortan lehenengo estudixuak dittuk.

-Zelako entrenamentuak eitten dozuez?

-Jubeniletan nik etzuat uste larregik entrenatu biar danik ze gastau eitten dittuk nerbixuek. Nere ustez gaiñera deportiek kanbixau ein biar litzakez danak. Pelotie be ona dok, edo futbola, edo futiñe, zeozer baiñe diferentie. Ahaztu bizikletie ta beste gauzeikin hasi, ze bizikletiaikin eitten dabena biharra.

GESTORIA
eta
AHOLKULARITZA
M. URIARTE

MARQUÉS DE VALDESPINA, 14 - BEHEA
TELEFONOA: 17 33 87

DULCILANDIA

✓Gozokiak
✓Fruitu sikuak
✓Urtebetetze opariak

Zubiaurre, 14

ERMUA

arral s.l.

esklusibak

Luis Cañas
La Española azeitunen
La Verja zumoen
Iturri kontserben
BANATZAILEA

Goitondo Goikoa poligonoa
B-3 Pabiloia
Telefonoa: 17 60 75
Mallabia